

⇒ Hizpide ⇒

Haur eta Gazte Literaturaren itzulpenak euskaratik Galizierara.¹

MÓNICA DOMÍNGUEZ PÉREZ

Universidade de Santiago de Compostela

JON SUAREZEK ITZULITA



Haur eta gazte literaturako (HGL) euskaratik galizierarako lehen itzulpenak 1980koak dira; hau da, HGL-ren ekoizpena eta errezepzioaren hazkunde nabariari esker inplikaturako sistemak garatzen hasten diren unekoak. Ordura arte, galizierara eginiko itzulpenak une hartan askoz ere garatuagoak zeuden literatura katalan, gaztelaniar edo frantziarretik zetozen ia beti.

1980koak dira Erein argitaletxeak egin eta espainiar esparruko lau hizkuntza ofizialetan batera argitaratutako «Ouriolo» bilduma osatzen duten lau itzulpenak. Xesús Rábade eta Helena Villar arduratu ziren galizierara



itzultzeaz eta Sálvora argitaratzeaz. Liburuotan, orrialde gutxikoak, Asun Balzolarek ilustrazioak nabarmentzen dira. Testua, argitaletxeko talde batek eginikoa, oso laburra da eta lehen irakurleei zuzendua, izaera didaktikoa duelarik literatura bainoago. Ekarpen esporadikoa izan zen, beraz, HGL-ren muga-mugakoa eta oihartzun gutxikoa.

1983 eta 1993 artean «A chalupa» bilduma argitaratu zen, lau hizkuntza ofizialetan batera argitaratua eta lau hizkuntza esparruetako lanekin. Horrela hasi ziren euskaratik galizierarako itzulpenak erregularizatzen, izan ere urtero, 1986 eta 1987an izan ezik, itzulpen hauetakoren bat argitaratzen baitzen, lehen izenburuen berrargitarapenak kontuan izan gabe. Bilduma honetan aurkeztutako ipuinak, 31na orrialdetakoak, «Ouriolo» bildumakoak baino luzeagoak dira eta orrialde beteko ilustrazio koloredunak dituzte. Euskaratik itzulitako zazpietatik lau Mariasun Landaren testuak dira; beraz, idazle hau, gaur egun euskal egile itzuli eta ezagunenetakoa, 80ko hamarkadan hasi zen bere lana zabaltzen. Beste itzulpenak, aitzitik, euskal herri-ipuin bat eta galizierara berriz itzuli ez diren bi egilerenak dira: Pako Sagarzazu (*A rata Rita*) eta Karlos Santisteban (*A rebelión dos xoguetes*).

1990 eta 1996 artean hiru lan itzuli ziren, oraingoan ez koedizio akordioei lotuta, argitaletxe galiziarren nolabaiteko plangintza eta aukeraketatik baizik. Ekimen honen zergatia 1989an Bernardo Atxagari eman zitzaion Literatura Sari Nazionala (helduentzakoa) izan daiteke. Data hori izan zen euskal hizkuntza eta kulturaren esparrutik haratago euskal literaturak izan zuen hedapen eta interesaren hasiera. 1990ean galizierara itzuli zen lana Atxagarena izateak egiaztatzen du hori. Horrela, *Duas letters* «Árbore» bilduman argitaratu zen. Bilduma hori Galaxia argitaletxeak sortu zuen bi urte lehenago, hala jatorrizko lanak nola itzulpenak biltzeko, garaikideak nagusiki eta luzera oso ezberdinekoak.

1995 arte argitaratzaile galiziarrek ez zuten berriz euskal HGL-ra jo beren itzulpenetarako. Orduan Atxagaren *Cando a serpe mira o paxaro* argitaratu zuen Ir Indo Edicións etxeak «Andorriña» bilduman (liburu bakarrekoa). Hirugarren argitaletxe batek, Edicións Xerais de Galiciaak, Mariasun Landaren *A miña man na tía* argitaratu zuen 1996an, jatorrizkoa atera eta urtebetera. Aipatutako azken hiru hauek lehenago koeditatutakoak baino lan luze eta konplexuagoak dira, irakurle gazteentzakoak. Haatik, ez dituzte hirurogei orrialde baino gehiago, esanguratsua dena argitaletxeentzat, itzulpen kostu txikiagoa suposatzen baitu.

2001ean, gazte literaturaren gorakadarekin, bi lan gehiago argitaratu ziren, ehun orrialde baino gehiagokoak: Patxi Zubizarretaren *De fél e de mel* (Xeraisen «Fóra de Xogo» bilduman), eta Juan Kruz Igerabideren *Helena e o solpor* (Galaxiaren «Costa Oeste» bilduman). Azken bilduma honetan argitaratu zen halaber, 2003an, Joanes Urkixoren *O guerreiro branco*. Azkenik, 2004an, Galaxiak aurreko urteko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala itzuli zuen: Mariasun Landaren *Un crocodilo debaixo da cama*.

Koedizioaren sistema erabiliz euskaratikako itzulpenak 1996an berreskuratu ziren, baina

aldaketa oso esanguratsuekin: «A chalupa» bilduman parte hartu zuten hiru argitaletxeei beste batzuk joan zitzaizkien gehitzen, valentzieraz, asturieraz eta aragoieraz batera argitaratzen zituztenak. Argitaratzaile Elkartuez ari gara, «Bambán» (1996-1999) eta «E que?» (2000-2004) bildumak argitaratu zituztenak. Biak dira formatu txikiko liburuentzakoak, orrialde beteko ilustraziodunak eta lehen irakurleentzako testuekikoak. «Bambán» bilduman egungo euskal narratzaile ezagunenetakoen lau ipuin argitaratu ziren (urtean bat). «E que?» bildumak lehen pertsonan idatzitako narrazioak biltzen ditu, euskal egileenak ia beti, eta haurren ikuspuntutik egungo arazoak dituzte hizpide, konplexuak ekidin eta aniztasunean eta ezberdintasunaren onarpenean hezteko.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik argitaletxe handiek edo estatu mailako taldeek beren funtsak galizierara itzultzen bazituzten ere, ez zen gauza bera gertatu euskaratik itzulitakoari dagokionean 1999ra arte. Urte honetan argitaratu zen Bernardo Atxagaren *Memorias dunha vaca* «Barco de vapor» (SM) bilduman, 1992tik zuena gaztelaniaz. Itzulpen hau, IBBY-ren ohorezko zerrendan dagoen lan batena, da oraingoz euskal literaturatik datorren bakarra bilduma galiziar honetan. Xeraisek (Anaya taldearena), ordea, euskaratikako hiru itzulpen gehitu zituen «Sopa de libros» bildumara 2000 urtean, beste bat 2003an eta beste bat 2004an. 2000 urteko bi izan ezik, beste guztiak adin ezberdineko irakurleentzako Mariasun Landaren lanen itzulpenak dira. Egile honen galizierazko zerrenda 2004an «Ala delta» bilduman Edelvives taldeko Tambrek argitaratutako beste itzulpen batekin osatu da.

Azken urteotan bizkortu egin da pixka bat euskaratik galizierarako itzulpen erritmoa. Esandakoez gain, «Paseño» bilduma aipatu behar da, Xeraisek eta estatuko hizkuntza esparru ezberdinetako beste argitaletxe batzuek 2004tik batera argitaratzen dutena. Bilduma honen formatua «Bambán» bildumakoaren antzekoa da, baina

gaitasun gutxiagoko irakurleei zuzentzen zaie eta testu laburragoak ditu, bikoiztuta, eskuz idatzita eta letra larriz idatzita. Euskal egile oso ezagunen bi izenburu ditu orain arte: Mariasun Landaren *Unha formiga orixinal* eta Patxi Zubizarretaren *No parque*.

Azkenik, jatorri galiziarra duen Kalandraka argitaletxeak, *Blobló* argitaratu zuen 2003an estatuko lau hizkuntza ofizialetan batera, argitaletxearen ohiturari jarraiki. Rai Buenoren album ilustratu bat da, jatorrizko hizkuntza euskara duena. Ilustrazioak, ordea, Mariona Babassa katalanarenak dira.

2004ra arte euskaratik galizierarako itzulpen argitaratuen aurkezpen hau eginda, komentatu ez diren edo orain arte esandakoan oharkabeko gertatu ahal izan diren gai orokor batzuk laburbiltzen dira jarraian:

1. Lehenago aurkeztutako lan baten arabera,² euskal literaturatik galizierarako itzulpenen kopurua proportzionalki bat dator biek literaturarteko komunitate espezifiko espainiarrean betetzen duten kokapen periferikoarekin. Hau da, itzulpen hauek ez dira literatura zentral askotatik (gaztelaniarra, ingelesa, frantziarra...) datozenak bezain ugariak, baina badira espainiar esparrukoak ez diren beste edozein literatura periferikoetakoak baino ugariagoak.



2. Euskaratik galizierara eginiko itzulpen ia guztiak HGL-ri dagozkio, komunitate literaturarteko espezifiko beraren literaturen artean ohikoa dena.

3. Itzulpen hauei nolabaiteko erregularutasuna ematen dioten ekimen bakarrak koedizio akordioak dira. Euskal lanak galizieraz argitaratzeko beste argitaletxe batzuen erabakiak noizean behingoa dira beti.

4. Batera argitaratutako lanak beren artean oso antzekoak diren bildumatan sartzen dira beti, aurrez zehaztutako paratestuekin: azal arrunta, formatu txikia, lau angelukoa edo tankerakoa, 23 edo 31 orrialde, ilustrazio handiak... Testuari dago-kionean, beti dira aurrentzako ipuinak. Aitzitik, argitaletxe galiziarrek edo talde zabalagoek aukeratutako itzulpenak narrazio luzeagoak dira beti, hamar urtetik gorako irakurleentzat aholkatuak gehienetan. *Blobló* da multzo honetan salbuespena, hala argitaratu zeneko edizio anizkoitzagatik nola azal gogordun formatu handiagatik, eta, hitzaren zentzurik mugatuenean, album ilustratua izateagatik. Edonola ere, narrazioen itzulpenak dira guztiak, azkenaldian euskal haur poesia hartzen ari den garrantzia gorabehera.

5. Lan eta egile hautaketa gaztelaniara eta katalanerako itzulpentzakoen antzekoa da nagusiki, koedizio eta talde editorialean ekimenagatik. Argitaletxeetako arduradunek euskara ez jakiteari ere zor zaio hori, errazagoa baita hizkuntza hurbi-lagoetara itzulitako lanetatik abiatuta aukeratzea. Koeditatuak ez diren lanak Mariasun Landa edo Bernardo Atxagarenak dira ia beti, euskal egile ezagun eta preziatuenak direnak. Guztira hamaika eta hiru lan dituzte hurrenez hurren galizierara itzuliak. Patxi Zubizarreta, hala ere, Atxagaren gaineratik dago itzulitako lau lanekin. Juan Kruz Igerabidek bi lan ditu eta gainerako egileek bakarra baino ez, 1980ko lau liburuak alde batera uzten baditugu.

6. Argitaletxe galiziarrek ilustratzaile galiziarrengana jotzen dute, koedizioetarako edo ilustraziorik gabeko bildumetarako izan ezik. Talde editorialek, alderantziz, gaztelaniazko bertsioetako ilustrazio berberak –eta sarritan euskal bertsioetakoak– erabiltzen dituzte, batzuetan hirurak urte berean argitaratzen direlarik.

7. Lan hauen galizierarako itzultzaileak asko dira eta horietako gutxi arduratu dira hiru baino izenburu gehiagoz. Sektorean dagoen espezializazio urria erakusten du horrek eta gaztelaniaren bidezko zeharkako itzulpenen nagusitasuna (ISBN-aren datu baseetan islatzen dena, batzuetan). Estatuko taldeetakoak ez diren argitaletxe galiziarrentzat eginiko itzulpen batzuek euskaratik zuzenean eginiko itzulpenak dirudite. Bitan sinatu dute itzulpena itzultzaile euskaldun batek eta galiziar batek.

8. Irregularra bada ere, 2000 urtetik aurrerako bilakaera kronologikoak gehikuntza erakusten du itzulpen hauen eta inplikaturako argitaletxeen kopuruan. Gehikuntza hau bat dator gaur egun ikusten den espainiar esparruko literaturen arteko itzulpenen areagotzearekin, ia norabide guztietan ematen dena. Hala bada, urteek aurrera egin ahala, joera honek jarraitzen baldin badu, HGL galiziar eta euskalduneko ordezkarien arteko ezagutze eza arinduz joango da.

1. «Historia comparada de las literaturas: aplicaciones al dominio ibérico» (HUM2004-00314) ikerkuntza egitasmoaren zati bat da lan hau. Egitasmoa Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatu da. Espainiar Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren FPU programaren bekaduna da bere egilea.

2. Mónica Domínguez (prentsan). «Tendencias de las traducciones entre las lenguas del ámbito español». *Actas del I Congreso Internacional «Traducción e Política Editorial da Literatura Infantil e Xuvenil en Galicia»*, Vigo, 18-20 dic. 2004.

Haur eta Gazte Literatura Kataluniatik. Begirada ez-oso?

PEP MOLIST ETA JOAN PORTELL

(*Faristol* aldizkariko zuzendariak. Consell Català del Llibre per a Infants i Joves.)

JON SUAREZEK ITZULITA



Artikulu hau planteatu eta katalanera itzultako euskal haur eta gazte literaturako liburuen zerrenda kronologikoki zerrendatzen hasi ginenean, konturatu ginen haren hastapena, gure herri txikiko liburudendetako apaletan, batzuetan elkarrekin lan egin duten Mariasun Landaren eta Asun Balzola ilustratzailearen eskuetatik etorri zela.

Egile hauek, urteen joanean, etengabeko presentzia izan dute katalanerako itzulpenetan nahiz eta, Mariasun Landaren kasuan, ez duen eragin nabarmen berezirik izan gure herriko haur literaturaren panoraman. Egile honenak badira



zenbait lan aipagarri baina, zoritxarrez, horietako bat ere ez da gure HGL-ren oinarritzko liburuen zerrendetako klasikoan panoramaren partaide izatera iritsi.

Beharbada ez da gauza bera gertatu Landaren lankide izan den Asun Balzolarekin. Honen lehen lanak, *Munia* protagonista zutenak (Apeles Mestres Saria, 1981), irakurleek eta kritikak goretsi egin zituzten. Irudiaren tratamenduak, akuarelaren erabilerak eta bere marren hauskortasunak ilustratzaile katalanen zimenduak ahuldu zituzten haren ilustratzeko modu berritzaileagatik. Balzolarek lanetako batzuk gerora, izen oneko egile katalan batzuen ilustratzaile bezala, erreferentzia puntu izan ziren, Olga Xirinacsen *Cavall de mar* (Barcanova) edo *Marina* lanak kasu. Eta idazle bezala *La caçadora d'Indiana Jones* (Cruïlla) lanari esker izan du eragina, eskola batzuetan irakurgai aholkatua izatea lortzearen meritua izan duelarik.

Baina euskal literaturarekin zuzenean lotzen

dugun inor bada, hori Bernardo Atxaga da, pixka bat beranduago iritsi zena katalanez Kataluniara. Idazle honi harrera ona egin dio irakurle katalanak, helduentzako lanekin batez ere, kultu-idazle bihurtu dutenak. Halakoa da Atxagarekiko mirespena ezen bere lanentzako bilduma eskusibobat merezi izateko ohorea izan baitu: «Biblioteca Bernardo Atxaga» (La Magrana argitaletxea). Oso egile gutxiren eskura dagoen meritua, ez bada Josep Pla bezalako helduentzako gure klasiko katalanetako batzuenen.

Bernardo Atxagak irakurle katalanekin konektatzen du, euskaldun eta katalanen izaera sarritan erlazionatzen duen sentikortasun mota bat konektatzen duen bezala. Bere lanak aldi berean agertu ohi dira katalanez eta gaztelaniaz, eta irakurleria zintzoa dute. Zer aurkitzen dute lan horietan irakurle katalanek? Narratzaile bezala duen bizitasunaz gain –ipuin tradizionalen berezitasunarekin lotua eta hitza eta ahozko tradizioarekiko mirespen zolia duena–, euskal herrien atmosferaren erretratua, sentikortasun berezia eta umore fina.

Atxaga, helduentzako bere liburuengatik ezaguna, nabarmendu egiten da haur liburuetan ere, nahiz eta arlo hau ezezaguna den haur literaturaren eremuetatik kanpora hitz egiten denean egile honi buruz. Haur eta gazteentzako bere lanak helduentzako lanak besteko maila mantentzen du, eta bi alderdi ikus daitezke argi. Haurrei zuzendutako lanean, Pau Joan Hernándezen itzulpen zoragarriari esker heltzen zaiguna, freskotasuna, umorea, asmamena eta, sarritan, surrealismoa dira nagusi. Gure herriko kritika eta irakurleak aldeko izan dituen sail bat *Xola* da, abentura bakoitzean giza jarrerak erakusten dituen pertsonaia, eta erreferentzia lan bihurtu dena.

Gazteei zuzendutako lanean, umorea eta surrealismoa bezalako ezaugarriak aurkituko ditugu haurrentzakoan bezala, baina tonu errealista da nagusi. Berezi ezagun egin den nobela *Memòries d'una vaca* (Cruïlla) izan da, Asun Balzolarena

bezala hau ere derrigorrezko irakurgai zenbait institututan.

Katalunian, euskal literaturaz hitz egitea, izan haur eta gazte literatura edo ez, Bernardo Atxagaz hitz egitea da, Mariasun Landa eta Asun Balzola bezalako aurreko aintzatetsiak dituen arren. Bera da euskal HGL den izozmendiaren punta, zeinari, azken hamar edo hamabost urteetan, berea bezain ahots magiko eta erakargarriak gehitu zaizkion.

Baina katalanez gure eskuetara iritsi diren beste egile batzuk aztertzen hasi aurretik, interesgarria da gure herriko jendeak euskal mundua nola jasotzen duen ikustea. Irakurritakora jotzen badugu, gure lurrian euskal HGL-k nekazari mundua erretratatzeko du, ohituretan aberatsa, topiko tipikoak dei genitzakeenaren bidetik. Horregatik galdetzen dugu ea euskal HGL guztia ari den gai hauen inguruan bakarrik. Izan ere izango baitira ziurrenik HGL katalanaren errealismo kritikoa deituriko mugimenduko lanen antzekoak. Ala ez? Nolatan ez zaizkigu bada iristen euskal mugimendu independistari buruzko nobelak, Bilboko itsasadarreko siderurgia desegitearen dramari buruzkoak? Eta terrorismoari buruzkoak? Edota Barakaldo edo euskal hiri handietako bazterreko auzoetako drogei buruzkoak? Adibide batzuk aipatzeagatik.

Ez al dugu katalanok etengabe prentsan bonbardatzen gaituzteneko euskal politikaren dikotomiaren aurrean gazte batek nola jokatzeko duen ezagutzeko eskubiderik? Ala argitaratzaile katalanek uste dute gai hauek ez direla gustuko izango eta ez direla salduko? Ziur baikaude izan badirela Idiazabal gazta baino haratago doazen gaiei aurre egiten dieten lan eta egileak.

Oroimen historikoari esker, Jesús Ballaz nafarraren nobela zoragarri bat bakarrik aipa dezakegu, arazo honi buruz duela urte batzuk gaztelaniaz argitaratu zuena: *El último vuelo* (Everest).

Baina, parentesi honen ondoren, itzul gaitezen lan eta egileen zerrendara.

Atxagaren oinordeko Patxi Zubizarreta eta

Juan Kruz Igerabide dira. Ezaugarri komun dezentetik idazle bi: biek lantzen dute sentikortasun berezia eta umore fina dituen prosa poetikoa, non, Atxagarengan bezala, hitzaren ahalmen eta ahozko tradizioarekiko mirespena arnasten den, eta, batzuetan, herrietako eta euskal gizartearen bizimoduaren atmosfera.

Juan Kruz Igerabide ezagutarazi duten lanik gehienak gaztelaniaz iritsi dira. Gutxi itzuli dira katalanera. Aipagarrienak *Helena i el crepuscle* (Argitaratzaile Elkartuak) –estatu espainiarreko hizkuntza guztietan argitaratzeko baterako proposamen hau denbora gutxiz gozatu ahal izan genuen–, eta *Set nits amb la Paula* (Edebé), Patxi Zubizarretarekin batera idatzia. Bigarren idazle honenak beste lan batzuk iritsi dira, eta batzuk Atxagaren arrastoan kokatzeko beste zabaldu dira: *Kasai, vas arribar per l'aire* (La Galera) adopzioaren azalpen poetikoa; tarteko adinean dauden irakurleentzako bi nobela zoragarri: *Magali ja*



ho saps (Barcanova) eta *L'anell de Midas* (Baula); eta *Dos casos únics* –bi ipuin, lehenengoak Obabako mundu mitikoaren istorioak ekartzen ditu gogora–.

Itzuli dira katalanera beste egile batzuen lanak, Argitaratzaile Elkartuei esker bereziki, baina oraingoz eta katalanezko liburuaren ikuspuntutik, bigarren mailan daude: Txiliku, Anjel Lertxundi, Miren Agur Meabe,...

Ilustrazioaren munduan, Asun Balzola derigorrezko erreferentzi puntu da oraindik ere, baina ez Katalunian bakarrik, Estatu osoan baizik. Badirudi azkenaldian Elena Odriozolaren eskutik etorri dela errelebu, indarrez azaleratu den ahots oso berezia eta delikatu. Halakoak dira, adibidez, bere azken lan zoragarrietako batzuk, Anayak argitaratutako Andersen ipuinak, kasu, edo *Peter Pan* lanaren bertsioa, Joseph-Francesc Delgado katalanak egokitu eta Edebék argitaratua.

Azterketa ez da zintzarriak jotzeko bezalako. Kataluniatik ikusita iruditzen zaigu euskal HGL berezko izaeraz blai dagoela, herriko jendearen izaera zizelkatzen duen argi eta itsaso harroak blaitua, eta literaturak halaxe adierazten digula. Eta gure herri txikitik nolabaiteko bekaizkeriaz begiratzen diogu, hona iristen zaigun HGL guztia «euskal erara» blaitzen duen literatura sortzeko gai izateagatik. Baina berehala sortzen zaigu zalantza: euskal HGL-ren ikuspegi ez-oso al dugu?

Zenbait eztabaidatan ziurtatu izan zaigu du-darik gabe zoritxarrez HGL mota bat baino ez dugula gozatu ahal izan. Batzuen edo besteen erruz, gutxitan iristen zaigun literatura, eta beti topiko gehiegiz zamatua, HGL-ren ikuspegi orokorra izaten laguntzen ez diguna. Irudipen bera dugu literatura galiziarrekiko, bere *Santa compaña* eta *eskalapoitan dabiltzan pertsonaiekin*; halakoxea euskal HGL ere, baserrietako bizimoduan oinarritua, praka motzekiko mutikoak eta egun grisak Zarautzeko hondartzetan.

Eta are okerrago genero «txikien» (kuantitatiboki hitz eginez, izenburu kopuruari dago-kionean) azterketa beldurgarrian sartzen bagara. Poesia edo antzerkia bezalako generoak, bi adibide jartzeagatik, ez dira ageri ia. Izan ere, *Troballengües Eletrobak* esperientziak berriki erakutsi digun bezala, Euskal Herrian haurrentzako poeta bat bederen bada: Juan Kruz Igerabide, atsegin eman ziguna euskaraz errezitatuz bere poema batzuk, gerora Miquel Desclot poeta katalanak itzuli zituenak.

Baina Kataluniatik ziurtatzen dizuegu ez garela zorabiatzen, kemenez behin eta berriz irakurri eta gozatzean, Xolarekin edo agertzen den Atxagaren azken liburuaren aurrean ilara egitean liburudendan. Agur.

Galizia eta Kataluniako literatura gure artean

XABIER ETXANIZ



Haur literatura sorkuntzaz gain itzulpenez ere osatu egiten da. Eta bai bata bai bestea hautatzeko orduan oso irizpide ezberdinak erabil daitezke. Itzulpeni dagokienez, eta horretan arituko gara lan honetan, nazioarte mailan arrakasta izan duten obrak, literatura edo ideologia aldetik afektibitatea duten obrak eta gure inguruko literaturetan daudenak euskaratu izan dira. Azken hauen artean, zenbait arrazoi direla eta, Galizia eta Kataluniatik etorritako obrak dauzkagu. Horiexek aztertuko ditugu ondoren.



Xabier Mendigurenek «Euskal literaturan itzuli izan diren liburuen zerrenda» argitaratu zuen 1981ean *Euskara* aldizkarian. Bertan ez da galegotik, ez galegoz sorturikoetatik, euskaraturiko obrarik aipatzen; katalanerakoak, aldiz, *Abereen mundua* (1968) edo *Eguzki ibiltaria* (1976) bezalako lan bakanak agertzen dira. Izan ere, 1980ko hamarkadan hasi ziren katalanerako eta galegoko obrak euskaratzen modu aipagarri batean.

Hasierak

1979an Hordago argitaletxeak eta Elkarrek «Tximista» eta «Itzul» sailak kaleratu zituzten. Lehenak batez ere idazlan klasikoak argitaratu zituen (London, Salgari, Stowe, Stevenson, Twain,...) eta oso tarte laburrez plazaratu zituen liburuak. Elkar etxeak, aldiz, pittinka kaleratu zituen obrak eta idazlan klasikoen ondoan (Verne, Stowe, Scott,...) Kataluniako idazlan modernoak euskaratzeari heldu zion. Horrela, 1980an bertan Sebastián Sorribas-Roig idazlearen *Ketxusen zoota* kaleratu zen Joxantonio Ormazabalek itzulia. Ondorengo urteetan, eta sail horretan bertan, Mercé Canela, Josep Vallverdu, Gabriel Janer Manila, Joaquín Carbo eta beste idazle batzuen lanak

plazaratu ziren. Bi helburu nagusi bete zituzten itzulpen hauek, batetik euskal haur eta gazte literaturaren corpusa handitu, eta bestetik idazlan klasikoen ondoren bildumari modernitate eta gaurkotasuna eman. Katalunian, Euskal Herrian eta Galizian ez bezala, tradizio txiki bat zuten haur eta gazte literaturgintzan, eta hurbiltasunagatik, adiskidetasunagatik eta erosotasunagatik Kataluniako obra aukeratu eta arrakastatsuak euskaratu ziren. Hala ere, berehala, nazioarte mailan garaiko obra garrantzitsuak euskaratzearekin batera, moteldu egin zen katalanaren presentzia gure artean.

Koedizioak

Ordurako, baina, beste akordio batzuk sendotzen ari ziren, Elkar, Galaxia eta La Galeraren arteko «Txalupa saila», esaterako; ipuinak euskaraz, galegoz, katalanez eta gazteleraz argitaratzeko akordioa. 1983an plazaratu zen aipaturiko saila eta bere lehen lanen artean Euskal Herriko ipuin herrikoi bat dugu, baina baita Pedro Casaren galegoaren *O can Rin e o lobo Crispín* (gure artean *Rin eta Krixpin* izenez argitaratua) eta Amèlia Benet katalanaren *Nit a la barca* (*Gau bat txalupan*) ipuinak. Sail horrek 1992ra arte iraun zuen eta hiru hizkuntzen arteko literaturen leiho edo ate garrantzitsua izan zen. Galegoen artean Agustín Fernández Paz, Xesus Pisón, Antonio García Teijeiro, Helena Villar Janeiro, Xohana Torres... idazleak ditugu. Kataluniatik, aldiz, Montserrak Viza, Roser Capdevilla, M. Àngels Gardella edo Maite Carranza bezalako idazle eta ilustratzaileak ditugu; bilduma horrek, besteak beste, herrialde ezberdinetako ilustratzaileen lana zabaltzeko ere balio izan baitzuen. Euskaldunen artean Mariasun Landa, Pako Sagarzazu, Karlos Santisteban eta Seve Calleja izan ziren idazlerik emankorrenak.

«Txalupa saila» izan zen formula hau erabiltzen lehena gure artean eta horri esker hasi ziren euskal idazle batzuen lanak kanporatzen (Mariasun Landaren kasuan, esaterako, *Txan fantasma*

ipuina kenduta bilduma horretakoak dira 1990 baino lehen erdaraz –galegoz, katalanez eta gaztelera– argitaratutako obra guztiak); eta formula horrek gaur egun ere bizirik dirau gure letretan. Honako hauek izan dira, kronologikoki, era horretan argitaratutako sailak: 1988an «Leiho saila» (Erein), 1989an «Atari saila» (Erein), 1990ean «Ahate bihurriarenak» (Erein), 1996an «Zazpi saila» (Elkar), 1999an «Apirila» (Elkar), 2004an «Letra magikoa» (Erein) eta 2005ean «Maleta magikoa» (Erein). Bilduma hauetan guztietan hainbat hizkuntzatan sortutako obrak koeditatu dira hizkuntza horietan.

Bilduma horiez gain, badira katalanez argitaraturiko beste batzuk euskarara itzulita plazaratu direnak («Sirena» eta «Betiko ipuinak» Elkar etxean, eta «Sirenatxoak» eta «Hitzik gabe» Ttarttalon, esaterako) eta beste hainbeste esan daiteke, baina galegotik euskarara, azken urteotan haurrentzako albumen hutsunea batzen lagundu duen Kalandraka etxe galegoaren lanaz.

Kasuren bat izan ezik, «Apirila» saila, adibidez, argitaletxeek beraiek bilaturiko lanez osatu dira bildumak (eta itzulpenak). Idazle katalanen eta galegoen artean badira behin baino gehiagotan agertzen diren izenak (Teresa Durán, Josep Antoni Fluixà, Miquel Desclot, ... katalanen aldetik eta Agustín Fernández, Xabier Docampo, Carlos Casares, besteak beste, galegoen aldetik). Jakina, idazleekin gertatzen den bezala bilduma hauek balio izan dute herrialde ezberdinetako ilustratzaileen lana beste hizkuntzetan ere argitaratzeko; horrela Montserrak Ginesta, Xan Lopez, Xose Cobas edo Pep Montserrat ilustratzaileen lanak koedizio hauetan argitaratu dira Jesus Lucas, Elena Odriozola edo Jon Zabalaren eta beste askoren lanekin batera. «Apirila» saila, berriz, iraun dituen 5 urteotan lehiaketa batera aurkeztutako lanez osatu da bilduma; gazteei zuzendua –eta ilustraziorik gabe– eta herrialde edo hizkuntza kuotarik gabe.

Euskaratuta obrak

Euskal haur eta gazte literaturaren egoera normaltzen joan den neurrian gutxitu egin da katalanekiko genuen beharra. Merkatu zabalean dauden eta irakurlearen interes eta beharrei erantzuten dieten obrak euskaratzen dira. Idazle ingeles, brasildar edo suediar... izan berdin da, horrela, H. Mankell, L. Bojunga Nunes edo Dahl idazleen obrak euskaratu dira irizpide literarioen arabera. Urtero-urtero euskaratutako ehunka obra horiek, bestalde, corpus oso zabala sortu dute eta merkatua gero eta aseago dagoen neurrian, gero eta hobeto asmatu behar da itzulitako obra hautatzerakoan.

Azken hamabost urteotan, alde horretatik, irizpide hori jarraitu da idazle katalan eta galegoen obrak euskaratzerakoan, eta horrela –kasu bakar batzuk kenduta, estatu mailako argitaletxeren batek bere katalogoko obrak euskaratuz– merkatuan dauden obren artean aukeratu da, irizpide komertzial eta literarioen arabera, euskaratu beharrekoak.

Katalanak

Azken urteotan, haur txikien liburuak kenduta, gutxitu egin da idazle katalanen presentzia





gure letretan. Hasiera urteetako garrantzi hura edo ondorengo koedizioen ondorengo pisua gutxitu egin dira (ikus bestela «Xaguxar» sailean azken urteotan argitaratutako itzulpenak). Hala ere, badira aipatu beharreko hainbat lan –gaia dela eta, batez ere– euskaratu egin direnak azken urteotan. David Duranen *Nahiago nuke mutila banintz!* (Erein) obra dugu horren adibide bat. Neska bat mutil baten gorputzean; hezkidetzaz, sexualitatea,... umorez kontaturik. Gemma Lienas, aldiz, gaur egungo kontuak ere azaltzen baditu bere obretan (anorexia, maitasuna,...) bere obrak serioagoak dira, *Joan-etorriko txartela* edo *Horrelakoa da bizitza*, *Carlota*, esaterako (biak Ereinen). Argialetxe horretan dago Gemma Lluch irakasleak idatzitako obra bakarra: <[//jokoa.com](http://jokoa.com)> (Erein) teknologia berrien mundu honetan jokoa amesgaizto bihurtzen duen nobela interesgarria.

Errealismo kritikoko koka daitezke, beraz, Kataluniatik datozen obra gehienak (umorearekin

bat eginez A. Martin eta J. Riberaren obretan bezala). Maitasuna eta nerabezaren kezkek agertzen dira, esaterako Glòria Llobeten nobeletan (*Zugan pentsatuko dut*, Elkar, dugu bere azken lana euskaraz) edo Pasqual Alapont idazle valentziarraren *Bollikaoak zug@tik* lanean. Baina badira gerra zibilaren inguruan kokatutako obrak ere; *Isiltasuna bihotzean* (Elkar), Jaume Cela idazle ezagunarena, edo Pau Joan Hernández idazle eta itzultzaile ezagunaren *Stukaren itzala* (Elkar) nobela zirraragarria.

Aurreko irizpideetatik at, eta oso kasu berezi moduan Miquel Descot idazlearen poema liburua argitaratu da azken urteotan: *Jo musika, jo!* (Elkar); urte askotan haurrentzat euskaratu den poema liburu bakarra, sari nazionala irabazi duen poema liburu bakarra.

Galegoak

Katalanen presentzia murrizten ari den bezala, azken urteotan Galiziatik etorritako obra kopuru gero eta handiagoa da euskal letretan. Fina Caslderrey, Xabier P. Docampo, Agustín Fernández Paz, Marilar Aleixandre, Gloria Sánchez... azken urteotan sari garrantzitsuek irabazi dituzten idazleak gara, eta horrek Galiziako haur eta gazte literatura bultzatzeaz gain beren obrak ere promozionatu ditu. *Piraten eskola* (Giltza) Edebé haur literatura saria dugu horren adibide bat; A. Fernandez Paz idazleak, lehendik ere koedizioez gain hainbat eta hainbat lan bazituen gure artean, *Lore erradioaktiboak* (Elkar), *Albak hamahiru urte* (Elkar), *Iragarki-ipuina* (S. M.), *Neskatxak* (Erein), *Oin hegalaria* (Anaya-Haritz), *Itzal suntsigarrien gaua* (Pamiela), eta abar, besteak beste hainbat sari irabazi dituelako (Lazarillo, Merlin, Raiña Lupa,...) eta askotan izan delako finalista sari nazionalan, baina baita ere Euskal Herriarekin lotura berezia duelako Gernikan irakaslea izan zenetik.

Lotura hau izan gabe ere, badira azken urteotan gurean argitaratu duten idazle galegoak.

Xabier P. Docampo aspalditik da ezaguna euskal letretan koedizioak direla eta, baina horrez gain bere *Kanpai hotsen misterioa* edo *Gauzez ate joka datozenean* (biak Elkar) nobela izugarria irakur ditzakegu euskaraz. Gauza bera esan dezakegun Marilar Aleixandrerren kasuan eta bere *Txapiro berdea* (Anaya-Haritz) eta *Etorkizunik ez* (Elkar) gazte nobela bizia direla eta.

Sariak, arestian aipatu bezala, garrantzi handia izan dute Galiziako obrak eta egileak promozionatzeko orduan. Edebé saria Agustín Fernández Pazek gain beste idazle batzuek eskuratu dute; Gloria Sánchezek *Rus Doktoea* (Giltza) obrarekin, edo Fina Casalderreyk *Ahate pobreen urmaela* (Edebé-giltza) lanarekin. Sari horiek irekitako atetik etorri dira baita ere Sánchezen *Sorgin txikiaren eskuliburua* (Giltza), esaterako, edo Casalderreyk idatzitako *Euli-hegoak Antxorentzat* (Anaya-Haritz) bezalako lanak.

Galiziako haur eta gazte literaturak oso egoera berezia bizi du azken urteotan. Barne merkatu babestuan (galegoratutako obren kopurua ez da beste herrialdeotakoaren parekoa) lortu dute literatura aberatsa eta bizia, kanporako berehala zubia eraiki duen literatura.

Azken honen adibide argia dugu Kalandraka etxeak eginiko lana. Azken bost urteotan Vigoko argitaletxe horrek nazioarteko album ezagunen ondoan batez ere galegoz eginiko ipuinak eta adaptazioak argitaratu dituzten haur txikienezako liburuetan. Koldo Izagirrek euskaratu ditu argitaletxe horrek euskaraz argitaraturiko dozenaka liburu... nahiz eta azken urtean argitalpen erritmo hori moteldu eta ia gelditu egin den.

Zubiak irekita

Euskara, galegoa eta katalanaren arteko zubiak inoiz baino irekiago daude gaur egun. Hizkuntza batetik bestera gero eta sarriago eta era naturalen itzultzen ari dira obrak, eta gero eta sarriago irizpide literarioak gidatzen du itzulpen lana. Hala ere, beti da errazago haiengatik gureganako bidea euskaratik katalanera edo galegora baino, alde horretatik interesgarria eta beharrezkoa dugu itzulpen eta promozio politika bat, euskal literaturako obrarik garrantzitsuenak hemendik kanpo ere ezagut ditzaten. Zubiak irekita daude... gurutza ditzagun.

